

Ekobola

Detergenterik behar ez duen garbitzailea

Gero eta urrats gehiago ematen ditugu ingurumena ahalik eta gehien errespetatu asmoz, baina oraindik zeregin asko dugu alor desberdinetan. Horietako bat garbiketarena da, egunero milaka tona detergente isurtzen baitugu itsaso eta ibaietara arropa garbitzen dugunean. Arazo horri aurre egiteko sortu dute ekobola; baina zer da?

Zein ezaugarri ditu eta nola funtzionatzen du?

JOXERRA AIZPURUA



DETERGENTEA kutsatzaile handia da, besteak beste fosfato ugari igortzen duelako, eta ekobolak hori saihestea du helburu, garbigailuan sartu eta detergentearen beharrik gabe arropa garbitzea. Konposizio kimiko zehatza inon topatu ez badugu ere, zeramika bereziz osatutako bolak direla jakin badakigu. Konposizio kimikoari buruzko datu ezak kezka apur bat sortzen du, baina Coca-Colaren konposizioa ere ez da ezaguna eta munduan gehientsu edaten den edaria da.

Asiako hainbat herrialdetan, Japonian eta Korean kasu, urte luzeetako tradizioa duen gailuak nola eragiten du? Zeramikaren osagaiek uraren egitura eraldatzen duten ioiak sortuz

Oxigeno aktiboa

Oxigenoa bere horretan (O_2) edo uretan (H_2O) topatzen da gehienetan, baina oso ezegonkorra da eta bere egitura elektronikoa erraz aldatzen du. Hori dela medio oso erreaktiboa da, hau da, beste edozerekin elkartzeko joera handia du, ikusi besterik ez dago aire librean utzitako zenbat material herdoiltzen den. Oxigenoaren joera hori garbitzaile bezala ez ezik, aplikazio ugarian aprobetxatzen da, baina ez da beti ona izaten, arnasten dugun oxigenoak batzuetan gure zelulekin erreakzionatu eta hauek kaltetu ditzakeelako.

edo, beste era batera esanda, uraren osagarriak diren hidrogeno eta oxigenoan eraginez; nola-bait esatearren “oxigeno aktiboa” era naturalean sortzen dute eta gauza jakina da oxigeno aktiboa garbitzaile aparta dela.

Aipatu dugun ionizazio maila ez da handia, hau da, “oxigeno aktiboa” ez da kantitate handitan sortzen, beraz arropa zikin samarrarekin ekobolak detergente tradizionalen laguntza behar du. Hots, ekobolarekin batera detergente pixka bat, normalean erabiltzen denaren bostena, botatzea komeni da.

Bola bakoitzak hiru urteko iraupena du —egunero garbiketa bat eginez gero— eta berrogei euro inguruko salneurria. Egindako inbertsioa berehala amortizatzen dela begibistakoa da. Eskuragarri dago www.ecobola.es webgunean.

Ekobola bakterizida eta fungizida da, sortzen duen oxigeno aktiboak bakterio eta onddoak erasotzen baititu; leuntzailea ere bada, arropa lazten duten elementuak, karea tarteko, neutralizatu egiten baititu. Propietate horiei esker, beste hainbat erabilpenetarako ere eraginkorra da. Adibidez, hozkailuan produktuak gehiago irauteko balio du, onddoak eta bakterioak akabatuz, produktuen iraupena luzatu egiten baita. Hala-ber, dutsako telefonoan ekobolaren sistema bera erabiltzen duen gailua asmatu dute, xaboiak aurreztu asmoz. ■